

02/07 AKTA

2007KO OTSAILAREN 22AN EGINDAKO BATZARRA

Mendexan, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta zazpiko otsailaren hogeita bian, iluntzeko zazpi eta erdietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Luis M^a Ocamica Gogenola alkate jauna buru dela.

Bertaratuak:

Zinegotziak: Juan Miguel Txakartegi Zendoia
Martin Aranzamendi Gabiola
Txomin San Martin Badiola
Miguel Iturbe Sarasola
Maria Magdalena Gabiola Arostegi
Idazkaria: Miren Begoña Laka Ortuondo

Bertaratu ez direnak:

Jose Manuel Laka Arrillaga

Alkate-udalburu jaunak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

1.- LEHEN OKUPAZIORAKO HIRIGINTZ BAIMEN ESKAERA.- Jaione Iturbe Leturiaga eta Luis Fernando Fernandez Goitiz jaunandreek, Zelaia auzoko U.E. Zelaia II exekuzio unitateko A5 partzelan eraikitako etxebizitza bakarrarentzako lehen okupaziorako hirigintz baimena eskatu dute.

Kontuan izanik eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa eta udal arkitektu aholkulariaren txostena; baita ere eskollera bukatuta dagoela, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Zelaia auzoko U.E. Zelaia II exekuzio unitateko A5 partzelan kokaturiko Jaione Iturbe Leturiaga eta Luis Fernando Fernandez Goitiz jaunandreen jabetzako etxebizitza bakarrerako lehen okupaziorako baimena ematea, ondorengo puntuan ezartzen den baldintzarekin:

2) Beheko solairuan eraikitako txokoak, garajeko 3 metrotako atea dauka eta gainera sarrerako ate automatikoa ere jarri diote parean. Mendexako Arau Subsidiarioetan ezarritako distantziak ez dituenetz betetzen, garaje erabilera inoiz ere ez da baimenduko eta debekatuta dago erabilera hori ematea txokoari. Horregatik, eskatzaileek idatzi bat aurkeztu beharko dute udaletxean aitortuz ez dela garaje bezala erabiliko.

2.- LEHEN OKUPAZIORAKO HIRIGINTZ BAIMEN ESKAERA.- Jose Martin Iturraspe Okamika jaunak, Leagi auzoko Aurreko baserrian egindako bigarren etxebizitzarako lehen okupaziorako hirigintz baimena eskatu dute.

Kontuan izanik eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa eta udal arkitektu aholkulariaren txostena, Udaltzako aho batez erabaki du:

Leagi auzoko Aurreko baserrian egindako eta Jose Martin Iturraspe Okamikaren jabetzako bigarren etxebizitzarako lehen okupaziorako baimena ematea.

3.- OBRETARAKO LIZENTZIA EMAN, EGOKI BADA, MERTXE ROSAS ETA MANUEL OYANGUREN JAUNANDREEL.- Arkaitz Gorostiaga arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera egiteko eta 182.223,68 euroko aurrekontuarekin, Mendexako Likoa auzoko Arrasateko gune ruralean etxebizitza bakar bat eraikitzeke Mertxe Rosas Nuñez eta Manuel Oyanguren Lopez jaunandreek eskatu duten obretarako lizentzia emateko espedientea ikusirik.

Ikusirik Jesus Angel Landia Uribe udal arkitekto aholkulariak idatzitako txostena.

Gaia aztertu ondoren, Udaltzako aho batez erabaki du:

Mertxe Rosas Nuñez eta Manuel Oyanguren Lopez jaunandreei eskatutako lizentzia ematea, ondoren adierazten diren baldintzak betez:

1) Lizentzia honek balio osoa izateko, **exekuzio proiektua** aurkeztu beharko da obrak hasi baino lehen, ondoren aipatzen diren korrekzio konkretuak eginda:

a) Sarrerako bidea ondo azalduta agertu beharko da.

Exekuzio proiektua aztertu eta udal arkitektuak bere aldeko eritzia agertu arte ezin izango dira hasi obrak.

2) Ondorengoak kontutan izan beharko dira:

a) Udalerri guztian zehar jarri diren suteen aurkako instalazioak erabilgarri izan ditzaten, komenigarria litzateke ur sare orokorrera konektatzerakoan “boca de riego” deritzona jartzeko besteko tuboa sartzea eta aipatutako ahoa jartzea.

b) Argiteria publikoa izan nahi ezker, dagokion farola bere kontura izango da eta argi-indarra bere kuadro orokorretik hartuko da. Kontador berezia jarriko da farolaren kontsumoa zein den jakiteko eta udalak ordainduko du farolaren kontsumoa.

c) Partzela hezi batez itxi nahi bada, Arau Subsidiarioetan datozen modeloetako bat izan beharko da.

3) Obrak udal honetan aurkeztutako eta espedientean agertzen den oinarritzko proiektuari eta aurkeztu behar den exekuzio proiektuari guztiz egokitu beharko dira.

Lizentziaren baldintzetatik kanpo gelditzen den edozein aldaketa urratse zigorgarria izango da eta dagokion legezkatze espedientea eskatu ahal izango zaio.

Lizentzia honetako edozein baldintza ez betetzea zigortua izan daiteke, bai isun bat jarriz bai obrak geldituz, Udaltzako erabakitzen duenaren arabera.

4) Etxebizitza bakar berriari binkulatutako 2.000,00 m²ko partzela Jabetzako Erregistroan inskribatzerakoan aipamena egin beharko da terrenoak hirigintzazko binkulazioa duela eraikuntzarengan.

Halaber, eskritura notariala aurkeztu beharko da. Bertan binkulatutako terrenoa eskatzailearen jabetzakoa dela agertu beharko da eta aipatutako hirigintz binkulazioaren aipamena agertu beharko da eta baita ere dagokion terrenoa udalaren alde zeditu edo utzi dela.

5) Obren exekuziorako goi mailako arkitekto eta aparejadore edo arkitekto teknikoaren zerbitzuen kontratazioa exijitzen da. Udal Idazkaritzan dagozkien zerbitzu profesionalen errentamendu kontratuen fotokopiak aurkeztu beharko dira.

6) Obrak hasi aurretik, tokiaren egiaztapen-agiria (replanteoko akta) egingo da, jabetzak idatziz eskatuko duelarik.

7) Ukitzen dion indarreango legeria guztia bete beharko da, bereziki laneko osasun eta segurtasunari buruzkoak. Hau dela eta, segurtasun koordinatzailea izendatu beharko da eta kontratuaren kopia aurkeztu beharko da udal idazkaritzan.

8) Halaber, ugazabaren kargu izango dira urbanizazio kostuak eta beharrezko izan daitezkeen bide, ur, argi eta zerbitzu guztien ezarpena.

9) Obrak burutzeko epea urte bikoia izango da, baimen hau jakinarazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

10) Obrak bukatu eta gero, Udaletxean berri eman beharko dute, Udaleko zerbitzu teknikoek inspektzioa egin dezaten; obretarako lizentzia emategatik tasa eta eraikuntza, instalazio eta obren ziozko zergaren behin-betiko likidazioa egingo delarik. Eskaerarekin batera obren amaierako ziurtagiria eta obren likidazioaren laburpena aurkeztu beharko dira, obren zuzendaritzako teknikoei dagokien Elkargo Profesionalek bisaturik.

11) Lizentzia hau beste Administrazio edo Erakundearen eskuduntzen kalterik gabe, jabekuntza eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

4.- JOSE M^a URKIAGA JAUNARI, EGOKI BADA, OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA.- Jose M^a Urkiaga Urresti jaunak Zelaia auzoko Herriko Plaza 2, 1.D etxebizitzan leihoak aldatzeko obrak egiteko aurkeztu duen udal baimen eskaeraren berri eman da, obra honen aurrekontua 2.155,00 eurokoa izanik.

Udalbatzak aho batez eskatutako obretarako udal baimena ematea erabaki du, ondorengo baldintzapean:

1) Udaletxean aurkeztutako agiriei loturik burutu beharko dira obrak.

2) Obrak burutzeko epea urte betekoa izango da, baimen hau jakinarazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

3) Lizentzia hau jabekuntza eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

5.- TEJABANA KONPONTZEKO OBRETARAKO LIZENTZIA EMATEA, EGOKI BADA.- Juan Arriaga Uberuaga jaunak, Zulueta-Errota baserriaren aldamenean kokatutako bere jabetzako tejabanaren teilatua konpontzeko obrak egiteko aurkeztu duen udal lizentzi eskaera ikusirik, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Eskatutako obretarako udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

1) Udaletxean aurkeztutako agiriei loturik burutu beharko dira obrak. Teilatua derrigorrez teilaz estali behar da.

2) Obrak burutzeko epea urte betekoa izango da, baimen hau jakinerazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

3) Lizentzia hau jabekuntza eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

6.- OBRETARAKO UDAL BAIMENAREN LUZAPENA EMATEA ANTONIO VIDAL JAUNARI.- Mendexako Baurdo inguruan, 4 poligono 100 eta 101 partzeletan zaldientzako korta eraikitzeke 2005eko abenduaren 22an eman zion Udalbatzak obretarako lizentzia Antonio Vidal Goitiandia jaunari, urte beteko epearekin. Baimen epea bukatuta egonik obrak amaitu orduko, obra-baimena luzatzeko eskaera aurkeztu du interesatuak.

Udalbatzak aho batez erabaki du:

Mendexako Baurdo inguruan, 4 poligonoko 100 eta 101 partzeletan zaldinetzako korta eraikitzeke Antonio Vidal Goitiandia jaunari emandako obretarako udal baimena urte betez luzatzea, gogoratuz obretarako udal baimenean ezarritako 4. baldintza; hau da, eskatzaileak lehendik behin-behinean baimenduta daukan txabola kendu egin beharko dela.

7.- JUAN M^a ALVAREZ JAUNARI, EGOKI BADA, OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA.- Juan M^a Alvarez Uribe jaunak Likoa auzoko Isuntza Zubiko Etxea, 1 etxebizitzan leihoak aldatzeko obrak egiteko aurkeztu duen udal baimen eskaeraren berri eman da, obra honen aurrekontua 1.690,00 eurokoa izanik.

Udalbatzak aho batez eskatutako obretarako udal baimena ematea erabaki du, ondorengo baldintzapean:

2) Udaletxean aurkeztutako agiriei loturik burutu beharko dira obrak.

2) Obrak burutzeko epea urte betekoa izango da, baimen hau jakinarazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

3) Lizentzia hau jabekuntza eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

8.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA HASIERAZ ONARTZEA.- Carmen Solanoren oinordekoen enkarguz, Eusca de Arquitectura, S.L. enpresak idatzi du U.E.R.-1 exekuzio unitatearen eremuan Arau Subsidiarioak aldatzeko proposamenaren zuzenketa, udalaren onarpena eskatuz.

Jatorrizko proposamena ez onartzea erabaki zuen udalbatzak 2006-09-26ko bileran., besteak beste, etxebizitza kopurua asko gehitzen zelako. Hori dela eta, proposamenaren zuzenketa aurkeztu dute, arau subsidiarioen aldaketa askoz ere errazagoa proposatuz.

Udal arkitekto aholkulariaren txostena ikusirik, eta gaia sakonki aztertu ondoren, udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Mendexako arau subsidiarioen aldaketa puntuala, U.E.R.-1 “Solano” exekuzio unitatearen eremuan, hasieraz onartzea eta jendaurrean azaltzea iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatu beharreko hile beteko epean. Espedientea azertu, eta bere kasuan alegazioak jarri, nahi duten guztien esku geratzen da udal idazkaritzan.

2) Behin-behineko onarpena eman aurretik, aldaketa proposamenaren hiru kopia oso aurkeztu beharko dira udal idazkaritzan, aldundian tramitazioa jarraitu ahal izateko.

9.- EUSKAL HERRIKO ITSASERTZ MUGARTEAK ESKATUTAKO TXOSTENA.- Euskal Herriko Itsasertz Mugarteak, Lea ibaiertzeko ibilbidearen barne, Mendexako aintzinako ontziolan itsasontzia jartzeko aurkeztutako eskaerari buruz udal honen txostena eskatu du.

Gaia azertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Lea ibaiertzeko ibilbidearen barne, aintzinako ontziolan itsasontzia jartzeari dagokion proiektuari buruz baikorki azaltzea.

10.- LIKONAKO LANDA-GUNEAN ERAIKITZEKO AUKEREI BURUZKO ESKAERA-PROPOSAMENA.- Alkate jaunak azaldu du hainbat bilera izan direla Liku-Erdi eta Liku-Zabale baserriko ordezkariekin, Mendexako Arau Subsidiarioetan azaldutako Likonako landa-gunean etxebizitza berriak eraikitzeari buruz; zalantzak argitzeko eta proposamenak aztertze.

2007ko otsailaren 5eko datarekin idatzia aurkeztu dute Tere Erkiaga (Liku-Erdi) eta Miren Gurutz Erkiaga (Liku-Zabale) andreek. Idatzian, beraien ikuspuntuaren azalpen luze eta sakona aurkezten dute, eta azkenik, eskaerak egiten dizkiote udalari.

Udalbatzak, gaia sakonki azertu ondoren, eta udal arkitekto aholkulariaren txostena kontuan izanik, aho batez erabaki du:

Tere Erkiaga Gabiola eta Miren Gurutz Erkiaga Laka andreek aurkeztutako eskaera-proposamenak partzialki onartzea, ondoren azaldutako eran:

a) Lehenengo puntuari buruz, nahiz eta Arau Subsidiarioetan baserri bakoitzak etxebizitza bi dauzkala agertu, errealitatean bat bakarrik dago bakoitzean, eta lotutako lur-sailak benetan existitzen diren etxebizitza bakarrei lotu behar zaizkie.

Dena den, egoera desegoki hau konpontzeko modua izango litzateke: Arau Subsidiarioen Berrazterketa egiten denean, landa-gunearen konfigurazioa egokitu daiteke, baserri barruan bigarren etxebizitza bat sortzeko beharrezkoa den lur-saila zehaztuz (analogiaz, 2.000 m²).

b) Bigarren puntua bere-berean onartzea, hau da, Mendexako Udalak ondorengoa onartzen du:

Liku-Zabalek bere terrenoei lotuta daukan Liku-Erdikoaren terrenoa, Liku-Erdikoaren eraikin berriaren terrenoei lotzea. Ondorioz, Liku-Zabalek, etxebizitza biko eraikin berria barik etxebizitza bakarrekoa egin ahal izango du, eta Liku-Erdik etxebizitza biko.

c) Hirugarren puntuari buruz, ez da ondo ulertzen bere esanahia. Dena den, Arau Subsidiarioek edifikabilitatea konputatzeko gehieneko bat ezarri dute; 2.000 m²ko

partzelan gehienezko 500m² eraikita (300 m² etxebizitza erabilerarako eta 200 m²ko beste erabilera osagarrietarako).

d) Laugarren puntuari dagokionez, nahiz eta arauetako planoan rotonda egon marraztuta, horrek ez du esan nahi derrigorrez rotonda egingo denik. Derrigorrezkoa da lurraren zesioa egitea eta lur-erreserba bezala geratuko litzateke. Proiektua egin eta onartzerakoan erabakiko luke udalak, zer nolako erabilera publiko eman lagatako lurrari.

Arau Subsidiarioetan ezarritakoa aldatzeko proposamena denez, lur-lagapen osoa (baserri biei dagokiena) aprobetxamendua lortu ahal izateko gauzatu beharko da. Hau da, etxebizitza berriei dagozkien aprobetxamendua lortzeko derrigorrezkoa izango da zesio guztiak eginda izatea.

11.- OBREN SUSPENTSIOA ERABAKITZEA.- Jose Vidal jauna, Zelaia auzoko bere jabetzako terrenoan, obrak egiten ari da, txabola eraikitzeke obrak hain zuzen. Udalak hala ziurtatu du lekuan ikusketa egin ondoren, eta denuntzia ere aurkeztu da.

Ikusirik aipatu instalakuntza eta obrak udal lizentziarik gabe egin direla.

Kontuan harturik indarreango hirigintz legerian eta 30/1992 Legean ezarritakoak.

Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Jose Vidal jaunaren jabetzako den terrenoan, txabola modukorako egiten ari diren obra, instalakuntza eta erabilerak **SUSPENDITZEA**, behin-behineko neurri bezala.

2) Interesdunei agintzea akordio honen jakinerazpena hartzen denetik zenbatu beharreko BI HILABETEKO epean, egindako obra, instalakuntza eta erabileretarako udal baimena eskatu dezala, oharteraziz derrigorrezkoa den lizentzia emandako epean ez bada eskatzen edo indarreango legeriarekin desadostasunagaitik ezin bada lizentzia eman, sortu dituen erabilerak behin-betirako galeraziko direla, eta deskonplimendua baino lehenagoko egoeran uztea kaltetutako ondasunak aginduko dela, beharrezkoa bada exekuzio subsidiarioa erabiliz.

3) Udalbatzaren akordio hau interesdunei jakinaraztea.

12.- EDURNE ITURRASPE ANDREARI, EGOKI BADA, OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA.- Edurne Iturraspe Atxurra andreak, Zelaia auzoko Mendexa-Goitikoa baserrian barruko konponketa lanak (ganbara konpondu eta erdiko solairuaren behengana konpondu) egiteko aurkeztu duen udal baimen eskaeraren berri eman da. Obra honen aurrekonturik ez da aurkeztu.

Udalbatzak aho batez eskatutako obretarako udal baimena ematea erabaki du, ondorengo baldintzapean:

3) Udaletxean aurkeztutako agiriei loturik burutu beharko dira obrak, 3. baldintzan ezarritakoa kontuan izanda.

2) Obrak burutzeko epea urte betekoa izango da, baimen hau jakinarazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

3) Obrak hasi aurretik, eta lizentzia honek balio osoa izan dezan, Udal Idazkaritzan egin beharreko obrei dagokion *aurrekontua* aurkeztu beharko da.

4) Lizentzia hau jabekuntza eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

13.- JAIETAN TXURRERIA JARTZEKO BAIMEN ESKAERA.- Eduardo Millan Gomez jaunak 2007ko San Pedro patroijaietan 4 x 2 m-ko txurreria eta ogibitartekoak saltzeko kasetak, aurreko urteetan jarritako berbera, jartzeko baimena eskatu duela ikusirik, Udaltzarak erabaki du:

Eduardo Millan Gomez jaunari 2007ko San Pedro jaietan txurreria jartzeko baimena ematea ondorengo baldintzapean:

1.- Mendexako Udaleko edo Jai Batzordeko ordezkariak seinalatzen duten tokian jarriko da kasetak.

2.- Kanona 76,23 €eurokoa da eta ordainketa Mendexako udal idazkaritzan egin beharko da, txurreria jarri aurretik.

3.- Euskararen erabilerari buruz, ondorengo neurriak bete beharko dira:

a) Prezioen eta oharren errotuluak bederen euskaraz jartzea.

b) Postua girotzeko erabiliko den musika euskal musika izatea.

14.- MENDEXAKO HIRUGARREN ADINEKOEN ELKARTEARI, EGOKI BADA, DIRU LAGUNTZA EMATEA.- Mendexako Hirugarren Adinekoen Elkarteak, 2006. urterako ekintzen egitarauarekin batera, kultur ekintzak antolatzen laguntzeko dirulaguntza eskaera aurkeztu du. Udaltzarak erabaki du:

Mendexako Hirugarren Adinekoen Elkarteari SEIEHUN ETA ZORTZI EURO ETA LAUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMOKO (608,93 €) diru laguntza ematea, gizarte-kultur ekintzak antola ditzaten.

15.- DIRULAGUNTZA ESKAERAK.- Idazkariak, heldutako dirulaguntza eskaeren berri eman du.

Gaia aztertu ondoren, Udaltzarak aho batez erabaki du:

1) Aurkeztutako dirulaguntza eskaera guztiak helburu interesgarriak eta txalogarriak dituztela onartu arren, Udalak errekurtsio mugatuak dituzenez ezinezkoa da denei laguntza ematea.

2) Hitza egunkariaren eskaerari dagokionez, Lea Artibaiko Amankomunazgotik bideratuko da dirulaguntza.

3) Ondorengo dirulaguntzak ematea, lehenasuna dutelakoan:
Korrika 2007ren alde, 380,00 €

16.- ETXERATEK AURKEZTUTAKO MOZIOA.- Etxeratek aurkeztutako mozioaren berri eman da, hitzez-hitz honela diolarik:

“Gure senide Iñaki de Juana donostiarra hil ala biziko egoeran aurkitzen da Espainiar Estatuak ezarritako kondena oso-osorik bete ostean ez dutelako askatu. Espainiar Estatuak ezarritako kondena 2000. urtean bete arren (orduan bete baitzuten kondenaren 3/4ak) ez zuten askatu. Kondena oso-osorik 2004. urtean bete zuen baina orduan ere ez zuten askatu. Batetik, ebazpen judizialen bitartez onartuak zituen

erredentzioak egun batetik bestera kendu egin zizkiotelako eta, bestetik, Espainiako aginatriek publikoki aitortu zuten bezala, edozein bitarteko erabiliz, kasu honetan bi iritzi artikuluetatik, gure Iñaki ia beste 13 urtera kondenatu dutelako.

Guzti honegatik Iñaki gose greba mugagabea egiten ari da eta, egun, Madrilgo 12 de octubre ospitalean dute bere nahiaren aurka elikatuz, bere bizia arrisku larrian delarik.

Egoera ezin larriago honek, gure senide Iñakiren bizitza arrisku larrian baita, ondoko lerroetan laburbiltzen den mozioa urgentziaz tratatua eta udal honek onartua izatea eskatzea garamatza:

- Udal honek Iñaki de Juanaren berehalako eta baldintzarik gabeko askatasuna exijitzen dio Espainiako Gobernuari.
- Udal honek bere ekimenak antolatuko ditu Iñakiren askatasunaren alde (herritarrei parte hartzera deituz), edo jada antolatzen diren ekimenetan parte hartuko du.
- Erabaki honen berri komunikabideei zein herritarrei emango zaie.”

Mozioa aztertutik, Alkate jaunak mozioko lehenengo puntua bakarrik onartzea proposatu du.

Horren aurrean, Udalbatzak aho batez erabaki du aurkeztutako moziorekin lehenengo puntua bakarrik onartzea.

17.- GASTUAK.- Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu dira, beharbada onartzeko:

- M^a Magdalena Gabiolari, 67,16 €
- Urkiaga Elektrotresnaken faktura, 245,00 €
- Oronaren faktura, 470,25 €
- Eudelen faktura, 300,51 €
- Ofiserviceren faktura, 444,91 €
- Oiniz Zerbitzuak, S. Coop.ren faktura, 312,70 €
- Ansaren faktura, 1.036,20 €
- Acidekaren faktura, 435,31 €
- Ongizanen faktura, 641,86 €
- Wurthen fakturak, 72,69 € eta 577,22 €
- Zerbyteren fakturak, 6,00 € eta 95,00 €
- Learriren faktura, 599,07 €

Udalbatzak erabaki du aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu jaunak bilera amaitutzat eman du gaueko bederatzi eta erdiak direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.